

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

IVAP

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 19koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta behin-behineko emaitza horiek behin betiko bihurtzen dituen.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak, 2019ko otsailaren 4ko Ebazpenaz (EHAA, 2019/02/12; 31. zk.), hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen.

Deialdi honetako ohiko azterketa gainditu zuten azterketarien behin-behineko zerrenda Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2019ko ekainaren 19ko Ebazpenaz (EHAA, 2019/06/28; 122. zk.) argitaratu zen.

Zerrenda honen kontra erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, aurkeztutakoak aztertu egin dira. Gauzak horrela,

EBATZI DUT:

1.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra jarri eta onartu diren azterketarien erreklamazioen emaitzen argitalpena agintzea www.ivap.euskadi.eus helbideko Euskara atalaren Hizkuntza-eskakizunak azpiatalean.

2.- Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako beste erreklamazio guztiak gaitzestea.

3.- 2019ko ekainaren 19ko Ebazpenaz argitaratutako behin-behineko emaitzak behin betiko bihurtzea.

4.- Ebazpen honetan xedatutakoaren kontra gora jotzeko errekurtsioa ezarri ahal izango da Gobernantza Publiko eta Autogobernu sailburuaren aurrean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 19a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko idazkari nagusia
Sinatuta IVAPeko Zuzendaria kanpoan dagoelako (200/2012 Dekretuaren 8.2.f art.; eta 40/2015 Legearen 13. art.)

FULGEN ALEDO AMORÓS